

ETORKIZUNA
ERAIKIZ
think tank

ETORKIZUNEKO LANA

17. BILERAREN MEMORIA

2022/06/23

Edukia

1. Egitaraua 3

2. Bertaratuen zerrenda 3

3. Ongietorria 4

4. Aurkezpena: Prozesu honen eta GFAren politiken arteko lotura 4

5. Talde dinamika 10

6. Saioaren amaiera 13

7. Eranskinak 15

   a. Saioan erabilitako aurkezpena 15

   b. 19. Lan dokumentua 24

   c. Saioko programa 30

ETORKIZUNEKO LANARI BURUZKO EZTABAIDA GUNEA

2022ko ekainaren 23a, 16h-18h

1. Egitaraua

Ordutegia	Gaia	Aurkezlea/dinamizatzailea
16:00 - 16:15	Ongietorria	Unai Andueza. **Ekonomia, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko Proiektu Estrategikoetako Zuzendaria**
16:15 – 17:00	Aurkezpena: prozesu honen eta GFAren politiken arteko lotura	Unai Andueza. **Ekonomia, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko Proiektu Estrategikoetako Zuzendaria**
17:00 – 17:50	Talde dinamika	Unai Andueza. **Ekonomia, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuko Proiektu Estrategikoetako Zuzendaria**
17:50 - 18:00	Saioaren amaiera	Jabier Larrañaga. **Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko diputatua**

2. Bertaratuen zerrenda

- Jabier Larrañaga
- Unai Andueza
- Joseba Amondarain
- Jon Gurrutxaga
- Ander Arzelus
- Sebas Zurutuza
- Juan Ángel Balbás
- Ángel Martin
- Anabel Yoldi
- Aitor Txurruka
- Laura Muñoz
- Cristina Sánchez
- Lucía Amo
- Xabier Iruretagoiena
- Miren Canellada
- Itziar Abarisketa
- Erlantz Allur
- Unai Elorza
- Miren Larrea
- Pablo Costamagna
- Mikel Gaztañaga

3. Ongietorria

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hasi du saioa. *"Kaixo guztioi. Arratsalde on. Beti bezala, eskerrik asko saio honetara etortzeagatik. Gainera, gaur San Juan bezpera da. Beraz, mila esker saiora etortzeagatik eta esfortzu hau egiteagatik. Saioan itzulpena dago. Beraz, nahi duzuen hizkuntzan hitz egiteko lasai sentitu. Garrantzitsuena eroso sentitzea da. Gaurko saioaren egitura honakoa izango da: lehenik sarrera labur bat egingo dut; gero, prozesu honen eta Gipuzkoako Forua Aldundiaren politiken arteko lotura azalduko dut; eta, bukatzeko, beti bezala, talde dinamika eta plenario bat egingo dugu. Eskerrik asko etortzeagatik. Saioari hasiera emango diot."*

4. Aurkezpena: Prozesu honen eta GFAren politiken arteko lotura

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Lehenik eta behin, aurreko saioko ebaluazioekin hasiko naiz. Badakizue ebaluazioak oso garrantzitsuak direla guretzat. Aurreko saioko ebaluazioetan partaide batek honakoa aipatu zuen: enpresetan garatzen ari diren esperimentuen inguruko informazioa gehiago partekatu beharko litzateke. Hurrengo saioan honi erantzuten saiatuko gara. Baina, oraingoz, prozesuan aurrera goaz. Metodologia bat definitzen ari gara. Dakizuenez lau faktore erabakita daude: xedea, autonomia, gaitasuna eta erlazioa. Horiek hainbat saiotan azaldu dira."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Errepaso orokor bat egin nahiko nuke. Saioak bi motakoak izaten ari dira. Lehenik eta behin, gobernantzari lotutako saioak daude. Adibidez, diru laguntzak nola txertatu, nola egin entzute zintzo bat, nola eragiten duen politiketan edo maila anitzeko gobernantza nola ematen den. Izan ere, askotan esan dugun moduan, saio honetan garatzen ari garena diru laguntza edo programa batean bukatu beharko luke. Posible da existitzen den diru laguntza programa batean txertatzea. Baina, bestela sortu egingo litzateke. Bestalde,*

esperimentuen inguruko saioak izaten ditugu. Saio horietan enpresekin egin beharreko esperimentuen inguruan eztabaidatzen dugu."

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Orain arte hainbat marko azaldu ditugu. Irudian (eranskinak a; diapositiba 5) ikusi ditzakezue. Bi marko desberdin dira, baina antzekotasun handiak dituzte. Bertan prozesuaren zikloa azaltzen da: sentsibilizazioa, diagnostikoa, ahalduntzea edo jarraipena. Gero, eta horrekin lotuta, prozesu horretan eragile bakoitzak jokatu beharreko rolez hitz egin dugu. Hau da, eragile bakoitzak prozesuaren fase desberdinetan rol bat joka dezake. Hori ere oso garrantzitsua da. Sentsibilizazioan, adibidez, zubilanean arituko diren eragileak egongo dira: garapen agentziak, Lanbide Heziketako zentroak, Enpresa Asoziazioak, etab. Kasu horretan, helburua hau izango da: lanaren zentzua zer den eta zertarako balio duen azaltzea eta lehen aurre-diagnostiko bat egitea. Izan ere, kontuan izan behar dugu lanaren zentzuaren gai hau ez dela gai filosofikoa soilik. Lehiakortasun faktore bat ere bada. Eta horrek argi gelditu behar du. Beraz, enpresetara iristeko gai praktiko bat bezala ikusi behar da."*



Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Bestalde, diagnostiko bat ere aipatu zen. Diagnostiko hori kuantitatiboa eta kualitatiboa izango da. Rol hau zubilanean arituko direnak edo unibertsitateak bete dezakete. Helburua hau da: enpresaren lan-ildo garrantzitsuenak identifikatzea, antolakuntzaren erronka estrategikoak eta pertsonek lanari bilatzen dioten zentzua abiapuntu hartuta. Bestalde, enpresa ahaldunduko dituen ekimenak martxan jarri beharko dira. Arlo honetan, aholkularitza enpresek rol garrantzitsua jo dezaketela aipatu izan dugu. Horren helburua enpresa ahaldundu eta hobekuntza prozesua bultzatzea da. Eta, azkenik jarraipena egongo litzateke. Hemen Aldundiak eta unibertsitateek joka dezake rol bat. Helburua eraginkortasuna ezagutzea, ikasketak sortzea eta prozesu osoa berrikustea izango litzateke. Badakit hau guztia beste saioren batean azaldu dela. Baina, errepasatzea garrantzitsua da. Errepaso moduko bat egiten ari naiz. Orain arte gobernantza arloan egin duguna hau izan da, gutxi gorabehera."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Gaurko saioari helduz, gogorarazi nahi dizuet zein helburu jarri genuen. Helburu orokor bezala hau jarri genuen: think tankak orain arte esperimentazio prozesu batekin izan du lotura. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, eta zehatzago, Ekonomia Sustapenerako Departamentuaren herri politikekin lotzea izan da helburua, horrela esperimentaziotik ekintzara pasaz. Gainera, helburu zehatzago batzuk ezarri genituen. Horiek hauek dira: enpresak gure lankidetzazko gobernantzan txertatzea, think tankean parte hartzen ari diren erakundeetako batek haiekin interlokuzioa irekiz; hala nahi duten Gipuzkoako enpresei lanaren zentzuaren inguruko aurre-diagnostiko azkar bat egiten laguntzea; banakako datuen agregazioz, beti modu konfidentzialean, enpresetan lanaren zentzua nola dagoen jakiteko Gipuzkoa mailako diagnosia egitea; eta, azkenik, enpresek esandakoaren baitan, politiketan egin behar diren eraldaketak aztertzea."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Lanaren zentzua ez da gai erraza. Filosofikoa izan daiteke. Enpresa askok ez dakit ulertuko duten gai hau. Beraz, aurre diagnostikoaren fase horretan, garrantzitsua izango da enpresek ulertu ditzaketen kontzeptuak erabiltzea. Hizkuntza egokitzea tokatuko zaigu. Hori garrantzitsua izango da. Honek lagunduko digu ikusten ea nola dauden lurraldeko enpresak gai horren*

inguruan. Konfidentzialtasun guztiarekin tratatuko da gai hau. Izan ere, gai delikatua izan daiteke. Dakizuen moduan, prozesu hau diseinatzeko orduan asko inspiratu gara Industria 4.0ko prozesutik. Aldunditik Industria 4.0 eta digitalizazioa landu da enpresa eta lurraldeko beste hainbat eragilerekin. Modelo hori guretzat oso erabilgarria izan da. Guk modelo hori gure kasura ekarri nahi izan dugu."

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Goazen zerbait gehiago konkretatzera. Hainbat pauso azalduko ditut orain. Diseinuaren hainbat puntu azalduko ditut. Lehenik eta behin, adostu behar dugu zein motatako enpresatara iritsi nahi dugun. Adibide moduan, industria 4.0n egin zen proiektuan 10 eta 100 langile bitarteko enpresa industrialak izan ziren. Hau kasu konkretu bat da. Gurean ez du horrela izan behar. Adibide bat besterik ez da. Gure kasuan, talde moduan erabaki beharko dugu iritsi nahi dugun enpresak zein tamainakoak eta nolakoak izango diren. Bestalde, enpresa bakoitzarekin interlokuzioa nork edukiko duen adostu beharko da. Izan ere, industria 4.0n adibidez, interlokuzio lan hori agentziek bakarrik egin zuten. Baina, talde honetan, garapen agentziez gain, beste eragile batzuk ere bazaudete: enpresa elkarte desberdinak, adibidez. Erabaki beharko da zein elkarte joaten den enpresa batzuetara, eta zein besteetara. Banaketa bat egin beharko da. Proposamen bat, adibidez, hau izan daiteke: elkarteek badituzte bazkide batzuk. Errazena kolektibo horietara joatea izango litzateke."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Hirugarren puntua oso garrantzitsua da. Askotan eragile, talde, enpresa edo antolakundeez hitz egiten dugu. Baina, horien atzean pertsonak daude. Eta, kasu honetan ere gakoa pertsonak izango dira. Azkenean, interlokuzioa pertsonen artean izango da. Beraz, interlokuzio hori edukiko dutenek elkarrekin elkarrizketa egituratu baten diseinua egin beharko dute. Horrela enpresa bakoitzean autonomia, gaitasuna, erlazioa eta xedera lehen gerturatze bat egiteko. Diskurtso edo hizkuntza komun bat garatu beharko da. Nire ustez hori oso garrantzitsua da. Kontzeptu asko ari gara garatzen: lanaren zentzua, xedea, autonomia, erlazioa edo gaitasuna. Arazoa izan daiteke prozesu hauetan parte hartzen dutenek kontzeptu horien inguruko kontzepzio desberdinak izatea. Hori dela eta, uste dut*

hizkuntza eta diskurtso komun batzuk garatzea ezinbestekoa dela proiektua ondo ateratzeko."

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Bestalde, formakuntza bat egin beharko dugu. Elkarrekin adostutako formakuntza bat izan beharko da. Baina garrantzitsua izango da. Zein enpresatara jo behar dugun erabakitzen dugunean, interlokuzio baterako rolak ezartzen ditugunean eta hizkuntza komun bat garatzen dugunean, eta formakuntza bat egiten dugunean, enpresekin lanketa bat egiteko prest egongo gara. Lehenik eta behin enpresekin kontaktuan jarri beharko gara, eta haiekin elkarrizketa estrukturatu bat egin beharko dugu. Horren ostean, enpresa bakoitzari bere aurre-diagnostikoa emango zaio eta egokien dagokion programetara bideratuko da. Nahi badu, lehenesten duen ardatzaren lanketarekin hasiko da. Eta, azkenik, Gipuzkoako enpresen inguruko txostena prestatu eta programetan jasota ez dauden atalen inguruko beharrak jasoko dira."*

EKO27k hartu du hitza. *"Kaixo. Nik zalantza bat daukat. Lehenik eta behin, uste dut garrantzitsuak pertsonak direla. Hau da, 10 eta 100 pertsona arteko enpresetan pertsona mota asko daude. Garrantzitsua pertsona egokiak bilatzea da. Bestetik, uste dut enpresetan ongietorri ona nahi badugu, erabili behar ditugun kontzeptuen inguruan hausnartzea komeniko litzaigukela. Izan ere, lanaren zentzua oso kontzeptu abstraktua da. Enpresetan lan egiten duten pertsonek ulertu egin behar gaituzte. Gainera, guk lan egingo dugun enpresa mota txikia izango da seguru aski. Enpresa handietan horrelako kontzeptuak edo ekimenak hobeto ulertzen dira. Baina, enpresa txikietan kosta egiten da horrelakoak ulertzen. Beraz, honen inguruan hausnartu beharko genukeela uste dut.*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hartu du hitza. *"Ados nago esandakoarekin. Mezua enpresetara egokitu beharko dugu. Adibidez, talentua nola erakarri? Nola izan lehiakorrago? Nola bermatu langileen ongizatea? Horrelako esaldiak erabili beharko ditugu. Lehenik eta behin, zein enpresa motara iritsi nahi dugun definitu behar dugu. Lehen aipatu dudana industria 4.0ko adibidea zen. Kasu honetan ez du berdina izan beharrik. Enpresa mota definitzen denean, zein hizkuntza erabiliko dugun erabaki*

beharko dugu. Enpresekin egin behar dugun lanketa hori errazteko. Eskerrik asko komentario horregatik."

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Definizio komunak izatea garrantzitsua dela uste dut. Berriz ere Industria 4.0ko adibidea erabiliko dut. Izan ere, Industria 4.0ko proiektuarekin hasi ginenean, industria 4.0ren definizio ugari zeuden: alemaniarra, estatubatuarra, etab. Baina, definizio horiek ez zuten guretzat balio. Definizio propio bat behar zela erabaki zen. Nik uste kasu honetan berdina gertatu beharko dela. Guk gure definizio, kontzeptu eta hizkuntza propioak behar ditugu. Eroso sentitzeko ezinbestekoa dela uste dut."*



Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. "*Bestalde, kronograma bat planteatu dugu. Irailean beste zuzendaritzako programekin txertatu nahi da. Helburua urtearen hasierarako prest izatea da. Gutxi gorabehera, otsailetik aurrera zazpi hilabete izango ditugu. Gogoratu think tanka hilabetean behin elkartzen dela.*

Gainera, hurrengo urteko maiatzean hauteskundeak izango dira. Hala ere, ez dugu prozesua gelditu nahi. Prozesuan abian jarrita egongo da. Eta prozesuarekin jarraitzeko hautua egin nahi da. Horrela, iraila edo urrirako emaitza batzuk egongo lirateke. Momentu horretan galdera berriak egingo genituzke: zerbait berria egin behar da? Nahikoa da prozesu honekin? 2023 urte berezia izango da."

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Laster talde dinamikara pasako gara. Baina, lehenago zerbait esatea gustatuko litzaidake. Lehenik eta behin, uste dugu orain arte oso modu orokorrean landu direla erakunde bakoitzak bete ditzaken rolak. Beraz, erakunde bakoitzarekin gai hori landuko lirateke, parte hartu nahi duten edo ez ikusteko. Bestalde, parte hartzen duten erakundeekin, finantzazio irizpideak adostuko lirateke. Hori ere garrantzitsua da. Beraz, orain artekoa orokorra izan da. Baina, hemendik aurrera konpromezuak hartzen hasiko ginateke. Hala ere, oraindik zuen iritzia behar dugu. Hori dela eta, orain egin behar dugun ariketa garrantzitsua dela uste dut."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hitz egiten jarraitu du. *"Beraz, talde dinamikara pasako gara. Gaurko talde dinamikak aurkeztu dena baloratzeko balio beharko luke: ea ados zaudeten, zein matizazio egiten diozuen, zer aldatuko zenuten, etab. Zuen iritzia behar dugu. Aldunditik lurraldean eraldaketa bat bultzatu nahi izan dugu. Talde dinamika 45 minutukoa izango da. Gero, beti bezala, plenario bat egingo dugu. Horretarako talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratu beharko du. Gero, bozeramaile bakoitzak taldeko eztabaida eta ideia nagusienak azaldu beharko ditu. Hemendik 45 minutu ikusiko gara berriz elkar. Eskerrik asko."*

5. Talde dinamika

45 minutu igaro dira eta partaideak plenariora itzuli dira. Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hartu du hitza. *"Ongi etorri berriz ere. Nahiko denbora izan duzue taldean eztabaidatzeko. Orain, plenarioko ordua iritsi da. Lehenengo taldeko bozeramaileari emango diot hitza. Eskerrik asko."*

Lehenengo taldea

Lehenengo taldeko bozeramailea DFG3 da. *"Gure taldean eztabaida sutsua izan dugu. Oso interesgarria izan da. Gure taldean ekimen berri bat azaldu da. Izan ere, prozesu honetan zuzenean enpresatara joan gara. Baina, gure ustez Gipuzkoarren iritzia falta zaigu. Hau da, zer pentsatzen dute gipuzkoarrek lanaren zentzuaren inguruan? Jendearen pertzepzioa falta zaigu. Gainera, uste dugu herritarren artean desberdintasun handiak egongo direla. Adibidez, ez da berdina 32 urteko pertsona bati edo 50 urteko bati galdetzea. Edo generoaren arabera ere seguru asko pertzepzioa aldatu egingo da. Baina, modu batean edo bestean gipuzkoarren errealitatea ezagutu beharko litzateke. Izan ere, etorkizuneko lanaren inguruan ari bagara, gizartearen iritzia jakitea ezinbestekoa da."*

DFG3k hitz egiten jarraitu du. *"Bestalde, uste dugu enpresetara joan baino lehenago, enpresa horiek ezagutu behar ditugula. Gure ustez enpresa horiek prest egon behar dute guri entzuteko. Hori baldintza bat izan behar da. Bestetik, konpromezua derrigorrezkoa dela uste dugu. Bai zuzendaritzarena baina baita langileena ere. Esperimentuan uste dugu barneko eragileak oso garrantzitsuak direla. Kanpo kontrol bat egon behar du. Baina, barnekoak izan behar dira hori eramaten dutenak. Helburuetako bat lanaren zentzua enpresen agendan jartzea izan da. Hori enpresen errealitatearekin lotu beharko dugu, lehen esan den bezala: talentuarekin, lehiakortasunarekin, etab. Gauza askoren inguruan hitz egin dugu. Baina laburpena bat hau izan da. Eskerrik asko."*

Bigarren taldea

Bigarren taldeko bozeramailea DFG7 da. *"Gure ustez aurkeztu dena ondo dago. Hala ere, elementu batzuk botatzen ditugu faltan. Irailean gauza asko argituko direla uste dugu. Gure ustez formakuntzaren aurreko zerbait egin behar da: diagnostikoa zein den jakin behar dugu; nola egin behar dugun; zeinekin egin behar dugun. Hori garrantzitsua dela uste dugu. Gure ustez diagnostikoaren fasea oso garrantzitsua da. Konplexua izango da. Baina, garrantzitsua da. Izan ere,, lanaren zentzua oso gai konplexua da. Nik, adibidez, talde honetan sartu baino lehen, ez nekien zer zen. Beraz, gaia praktikara jatxi beharko*

da. Adibide errealekin lotu beharko da: talentu falta, ingeniariak lanez aldatzera, etab. Adibide konkretu horiekin lotu beharko dugu lanaren zentzua."

DFG7k hitz egiten jarraitu du. *"Gure ustez enpresek ez lukete ez handiak ez txikiak izan beharko. Tarteko zerbaitekin egin beharko genukeen lana. Bestalde, enpresekin lan egiteko, uste dugu eroso sentitu behar direnak izan behar dutela. Hau da, egunerokoan lan egiten duten eragileak: Adegi, Asle edo beste enpresa elkarteak, adibidez. Izan ere, elkarrizketa eta eztabaida pertsonalak izango dira. Konfiantza, zentzu horretan, elementu oso garrantzitsua izango da. Enpresak elkarrizketatzeko orduan, uste dugu mezuak argia izan behar duela: enpresak ulertu egin behar du zertaz ari garen. Zergatik da beraientzat garrantzitsua lanaren zentzua? Interlokuzio hori dugun pertsonaren inguruan ere hitz egin dugu. Gure ustez pertsona horrek enpresa ondo ezagutu behar du. Baina, aldi berean enpresan oraindik ibilbide bat izatea ona izango litzateke. Aldaketa horiek ezartzeko aukera izateko. Seguru aski gauza gehiago esan ditugu taldean. Baina, laburtzen saiatu naiz."*

Hirugarren taldea

Hirugarren taldeko bozeramailea DFG6 da. *"Planteatu diren helburuak oso interesgarriak izan dira. Gure taldean gauza askoren inguruan hitz egin dugu. Lehenengo galdera bati erantzun beharko litzaioke: zein enpresa motari interesatuko zaio gai hau? Gure ustez geroz eta enpresa txikiago, orduan eta interes gutxiago izango du horrelako gai baten inguruan. Beraz, normalean, horrelako gaien inguruan enpresa handiak izango dute interesa. Izan ere, egunerokoan gai hauek txertatzea ez da erraza. Eta, enpresa txikiak egunerokoan bizi dira. Zaila egiten zaie haratago joatea. Beraz, gure ustez sentsibilizazioa oso garrantzitsua da. Bestalde, enpresen aukeraketa egitea zaila dela uste dugu. Baina gauza bat argi daukagu: enpresatan pertsonak daude. Eta, pertsona horiek gakoak izango dira. Industria 4.0 eta digitalizazioaren proiektuaren esperientzia daukagu. Beraz, pertsonak ondo aukeratu beharko dira. Asle elementu garrantzitsu bat izan daitekela komentatu dugu taldean."*

DFG6ek hitz egiten jarraitu du. *"Diagnostikoa egitea garrantzitsua da. Baina, gure ustez tresnak falta dira oraindik. Ekintzara pasatzeko tresnak falta zaizkigu. Bestalde, programa hauek ezagutarazteko garrantziaz hitz egin dugu. Izan ere, enpresa txiki eta ertainek normalean programa hauek existitzen direnik ere ez dakite. Bukatzeko, uste dugu interbentzioak enpresa blokeetan egin beharko litzatekela. Horrela batak bestearengatik ikasi egingo du. Eragingarriagoak izango gara. Izan ere, enpresa batek besteetan zer egin den ikusteko aukera izango du. Hauek izan dira gutxi gorabehera gure taldean atera diren ideiak."*

Orkestrako erraztaileak hartu du hitza. *"Niri komentario bat egitea gustatuko litzaidake. Kafea hartzen ari ginela hausnarketa bat atera da. Think tankean hausnarketa asko egin ditugu. Eta ekintzara pasa gara. Baina, momentu batean hori bukatu egingo da. Beraz, spin-off moduko batean pentsatu beharko dugu. Think tank honetatik zerbait aterako da. Think tank honen ondorengo ibilbidea berriz ere pentsatu egin beharko da. Beste talde bat sortuko da seguru aski. Eta think tankak zer egin behar duen erabaki beharko da. Hau oraindik konkretatu gabe dago. Denborarekin joango gara ikusten. Baina, hausnarketa hori komentatu nahi nuen."*

Proiektu Estrategikoetako Zuzendariak hartu du hitza. *"Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko diputatuari hitza eman baino lehenago bi gauza. Lehenik eta behin, beti bezala gogoratu ebaluazioak bateatzeaz. Beti esaten dugun moduan, guretzat oso garrantzitsuak dira eta informazio asko lortzen dugu haietatik. Bestalde, gogoratu nahi dizuet abuztuan ez dugula saiorik izango. Beraz, hurrengo saioa irailean izango dugu. Sustapeneko zuzendaritzarekin izango da saioa. Ondo pasa oporrak eta pilak kargatu. Irailean ikusiko gara berriz."*

6. Saioaren amaiera

Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Inguruneko diputatuak hartu du hitza. *"Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko egiten duzuen esfortzu guztiagatik. Gaur San Juan bezpera izanda, hare eta gehiago. Beraz, mila esker saio hauetan parte hartzeagatik eta gaur hemen izateagatik. Nire azken hausnarketa hau da: lurreratu egin behar dugu. Beti*

hausnarketa berdina egiten dut. Baina, uste dut garrantzitsua dela. Azken finean, lanaren zentzua gure enpresen lehiakortasuna da. Hasieran hausnarketa zabal batekin hasi ginen. Baina, praktikara pasatzen hasi garen heinean, zailtasunak agertzen joango dira. Hori hegazkin batekin gertatzen den berdina da. Goi-goitik dena zabala ikusten da. Baina, lurreratzen zoazen heinean, bidea meheagoa egiten da. Beste hausnarketa bat egitea gustatuko litzaidake. Proiektua inplementatzen dugun momentuan, enpresak baino gehiago pertsonak aukeratu beharko ditugu. Esaten ari garenaren garrantzia sinesten duten pertsonak behar ditugu. Hemen landu dugun guztiak lehiakortasunarekin zerikusia daukala sinesten duten pertsonak izan beharko dira. Pertsona horien aukeraketa denon artean egin beharko dugu. Konfiantza gakoa dela uste dut. Inplementazioa bideratuko duten pertsonaren eta enpresako pertsonaren arteko konfiantza oso garrantzitsua da. Ez da enpresa guztiari konbentzitu behar. Nahikoa da pertsona egokia aukeratzea eta harekin lan egitea. Enpresa txikien presentzia oso positiboa izango litzake. Espero dut haiek ere bertan egotea. Guretzat oso garrantzitsua da hori. Guk, Aldundi bezala, horrelako proiektuak babesteko eginkizuna daukagu. Beraz, badaukagu lana. Orain deskantsatzea tokatzen zaigu. Ondo pasa udara eta indarberrituta etorri. Eskerrik asko!"

7. Eranskinak

a. Saioan erabilitako aurkezpena



Ebaluazioak / evaluaciones

Norbaitek ebaluazioan hau aipatu zuen:

Enpresetan garatzen ari diren esperimentuen inguruko informazioa gehiago partekatu


En la sesión anterior alguien mencionó:

Compartir más la información sobre la experimentación que se está desarrollando en las empresas

Irailean: GFAk jadanik badituen programen lanketa
Septiembre: reflexión sobre los programas que ya tiene la DFG



Marcos en que hemos representado las reflexiones anteriores



5

Rolei buruz esan ditugunak

- Sentsibilizazioa / formazioa:
  - Zubilanean arituko diren eragileak: Agentziak, Lanbide Heziketako zentroak, Enpresa Asoziazioak, …
  - Helburua: Lanaren zentzua zer den, zertarako eta lehen aurre-diagnostiko bat.
- Diagnostikoa (kuantitatiboa, kualitatiboa) eta estrategia beharrekin lotua
  - Zubilanean arituko direnak eta/edo Unibertsitateak.
  - Helburua: enpresaren lan-ildo garrantzitsuenak identifikatu (antolakuntzaren erronka estrategikoak eta pertsonek lanari bilatzen dioten zentzua abiapuntu hartuta).
- Enpresa ahaldundu ekimenak martxan jarri dezan
  - Kontsultorak.
  - Helburua: enpresa ahaldundu aldaketa / hobekuntza prozesua bultzatu, kudeatu eta mantendu dezan.
- Jarraipena, ikasketak, berrikuspena:
  - Diputazioak eta unibertsitateak.
  - Helburua: eraginkortasuna ezagutu, ikasketak sortu eta prozesu osoa berrikusi.

6

Lo que ha hemos definido sobre los roles

- Sensibilización /formación
  - Agentes que tienen conexión con las empresas: Agencias, centros de FP, asociaciones empresariales
  - Objetivo: compartir qué es el sentido del trabajo, en qué puede ayudar trabajarlo y hacer un pre-diagnóstico
- Diagnóstico (cuantitativo , cualitativo) y vinculado a las necesidades de la estrategia
  - Agentes que tienen conexión con las empresasa y/o universidades
  - Objetivo: identificar líneas de actuación más relevantes para la empresa (tomando como punto de partida los retos estratégicos de la organización y el sentido que las personas dan al trabajo).
- Empoderar a las empresas para que inicien procesos
  - Consultoras
  - Objetivo: empoderar a la empresa, impulsar, gestionar y mantener procesos de mejora/cambio
- Seguimiento, aprendizajes y revisión:
  - DFG y universidades
  - Objetivo: conocer la eficacia del proceso, generar aprendizajes y revisar el conjunto

7

Proposamena 2023 (I): helburuak

Helburu orokorra: Think tankak orain arte esperimentazio prozesu batekin izan du lotura, orain Gipuzkoako Foru Aldundiaren, eta zehatzago, Ekonomia Sustapenerako Departamentuaren herri politikekin lotzea da helburua, horrela esperimentaziotik ekintzara pasaz.

Helburu zehatzak:

1. **Enpresak** gure lankidetzazko gobernantzan txertatzea think tankean parte hartzen ari diren erakundeetako batek haiekin **interlokuzioa** irekiz
2. Hala nahi duten Gipuzkoako enpresei lanaren zentzuaren inguruko **aurre-diagnostiko** azkar bat egiten laguntzea
3. Banakako datuen agregazioz, beti modu konfidentzialean, enpresetan lanaren zentzua nola dagoen jakiteko **Gipuzkoa mailako diagnosia** egitea
4. Enpresek esandakoaren baitan, **politiketan** egin behar diren **eraldaketak** aztertzea

Propuesta 2023 (I): objetivos

Objetivo general: El think tank hasta ahora se ha vinculado a un proceso experimental, ahora el objetivo es vincularlo a una serie de políticas de la DFG, y más concretamente, del Departamento para la Promoción Económica. De esta manera, se dará el paso de la experimentación a la acción.

Objetivos específicos:

1. **Incorporar a las empreas** a nuestra gobernanza colaborativa mediante la interlocución con una de las organizaciones participantes en el think tank
2. Ayudar, a las empresas de Gipuzkoa que así lo deseen, a hacer un **pre-diagnóstico** rápido sobre el sentido del trabajo
3. A través de la agregación de los datos recogidos en los pre-diagnósticos, y siempre garantizando la confidencialidad, hacer un **diagnóstico de la situación de las empresas de Gipuzkoa** en este ámbito
4. Partiendo de lo expresado por las empresas, analizar los **cambios** requeridos **en las políticas**

Proposamena II: Pausoak

Sensibilizazio eta diagnostikoa prozesu berdinean egitea, ondorengo ezaugarriekin (proposamena egiteko Industria 4.0ren esperientzia hartu da gogoan):

1. *Diseinua 1*. **Zein enpresetara** joan nahi den **adostu,** 4.0.ren kasuan 10 eta 100 langile bitarteko enpresa industrialak izan ziren
2. *Diseinua 2*. Enpresa bakoitzarekin **interlokuzioa** nork edukiko duen adostu
3. *Diseinua 3*. Interlokuzio hori edukiko dutenek elkarrekin **elkarrizketa egituratu baten diseinua egin** enpresa bakoitzean autonomia, gaitasuna, erlazioa eta xedera lehen gerturatze bat egiteko
4. *Formakuntza*. Elkarrizketa egituratua nola erabili eta jasotako datuak aplikazio bakarrean nola jaso **formakuntza** egin
5. *Enpresekin lanketa 1*. Enpresekin kontaktuan jarri eta, hala nahi dutenei, **elkarrizketa egituratua egin**.
6. *Enpresekin lanketa 2*. Enpresa bakoitzari bere aurre-diagnostikoa emango zaio eta egokien dagokion **prometara bideratuko da,** nahi badu, lehenesten duen ardatzaren lanketarekin hasteko
7. *Politiketarako hobekuntzak*. Gipuzkoako enpresen inguruko **txostena prestatu eta programetan jasota ez dauden atalen inguruko beharrak jaso**

Propuesta 2023 (II): Pasos

Proceder simultáneamente a la sensibilización y al diagnóstico con un proceso que tenga las siguientes características (para preparar la propuesta se ha tenido en cuenta la experiencia del proyecto de Industria 4.0):

1. *Diseño 1*. Acordar **a qué empresas se quiere llegar,** en el caso de 4.0. eran las industriales de entre 10 y 100 empleados
2. *Diseño 2*. Acordar quién mantendra la **interlocución** con cada empresa
3. *Diseño 3*. Quienes vayan a mantener la interlocución, diseñar conjuntamente una entrevista estructurada que permita una primera aproximación a la autonomía, competencia, relación y propósito
4. *Formación*. Realizar una **formación** sobre cómo utilizar la entrevista estructurada y dar de alta la informacióin recogida en un aplicativo
5. *Trabajo con empresas 1*. Ponerse en contacto con las empresas, y con las que quieran hacerlo, **realizar la entrevista estructurada**.
6. *Trabajo con empresas 2*. Se entregará a cada empresa su pre-diagnóstico y se le **orientará hacia los programas que puedan ayudar a mejorar su situación** en uno o varios de los cuatro ejes.
7. *Mejoras en las políticas*. Se preparará un **informe** general sobre la situación de las empresas de Gipuzkoa **con las necesidades que no están resueltas en los programas existentes**.

Proposamena 2023 (III): kronograma

	Ira	Ur	Az	Ab	Urt	Ots	Mar	Ap	Ma	Ek	Uz	Ira	Ur	Az	Ab
Diseinua 1		■													
Diseinua 2		■													
Diseinua 3			■	■											
Formakuntza					■										
Enpresekin lanketa 1						■	■	■	■	■	■	■			
Enpresekin lanketa 2						■	■	■	■	■	■	■			
Politiketarako hobekuntzak													■	■	■

Think tankeko deliberazio saioak prozesu honetan laguntzera bideratuko lirateke, baina enpresekin hitz egin behar duten pertsonek beste saio berezi batzuk izango lituzkete

Proposamena 2023 (III): kronograma

	Se	Oc	No	Di	En	Feb	Mar	Ab	Ma	Ju	Jul	Se	Oc	No	Di
Diseño 1															
Diseño 2															
Diseño 3															
Formación															
Trabajo con empresas 1															
Trabajo con empresas 2															
Mejoras en las políticas															

Las sesiones del think tank se orientarían a acompañar este proceso, y habría sesiones adicionales para las personas que fueran a asumir el rol de interactuar directamente con las empresas

Proposamena IV: erakundeekin adostasuna eta finantzazioa

Gaurko saioan esaten dena entzun ondoren:

a) Orain arte oso modu orokorrean landu diren rolak, erakunde bakoitzarekin landuko lirateke, parte hartu nahi duten edo ez ikusteko

b) Parte hartzen duten erakundeekin, finantzazio irizpideak adostuko lirateke

Propuesta 2023 (IV): acuerdos entre organizaciones y financiación

Tras escuchar las aportaciones de esta sesión:

a) Los roles, que hasta ahora se han definido de forma muy genérica, se trabajarían con cada organización, para que cada una decida si quiere o no participar en este proceso

b) Con las organizaciones que quieran participar, se abordaría el tema dela financiación de este proceso

ETORKIZUNA ERAIKIZ
GIPUZKOA ETORKIZUNA ORAIN

Talde dinamika/ dinámica de grupo

En la presentación de hoy hemos escuchado una propuesta que la DFG hace a los representantes del ecosistema de las políticas participantes en el think tank. Se trata de una **propuesta para pasar a la acción en el 2023**, utilizando el conocimiento co-generado en el think tank para hacer un diagnóstico/sensibilización con empresas de Gipuzkoa.

Las preguntas para los grupos son:

1. ¿Refleja esta propuesta las aportaciones realizadas por el grupo hasta ahora?
2. Si la respuesta fuera afirmativa, ¿Qué se podría mejorar/afinar en los objetivos y los pasos establecidos?
   Si la respuesta fuera negativa, ¿Cuál puede ser otra forma de dar un primer paso hacia la acción en 2023?

Ebaluazioa eta hurrengo saioa



Bete mesedez ebaluazioa, asko laguntzen digu hurrengo saioak prestatzen

Responded, por favor, a las evaluaciones, nos ayudan mucho a preparar las siguientes sesiones



Hurrengo saioa irailaren 22an izango da, eta bertan esperimentaziotik abiatuta lanean jarraituko dugu

La siguiente sesión será el 22 de septiembre y trabajaremos partiendo de las aportaciones provenientes de la experimentación

b. 19. Lan dokumentua

THINK TANK

Etorkizuneko lanaren inguruko deliberazio prozesua: 19. Lan-dokumentua

LANAREN ZENTZUA: POLITIKEN HOBEKUNTZARAKO LANKETA

(2022eko ekainaren 23a)

Sarrera

Aurreko saioan (Maiatzaren 19an izandakoan) esperimentazio prozesutik ateratzen ari diren lanerako tresna eta metodologien inguruan aritu zen taldea. Oraingoan tresna horiek enpresetara eraman ahal izateko Gipuizkoako Foru Aldundiak (GFA) bere politikak nola erabili ditzakeen landu da. Horretarako, Unai Anduezak proposamen bat aurkeztu du, taldeari bi gauza galdetuaz, ea proposamen honek orain arte taldean esandakoei erantzuten al dien eta zein hobekuntza proposatuko lizkieken taldeek proposamenari.

Hiru taldetik bik proposamenak orain arteko lana ondo jasotzen duela esan dute, hirugarrenak ez dio galdera honi erantzun. Baina hiru taldeek egin dituzte hobekuntza proposamenak. Lan dokumentu honek hiru atal nagusi ditu. Alde batetik eginiko proposamena jasotzen da. Bestetik, taldeek proposaturiko hobekuntzak eta azkenik, proposamenaren definizio berri bat, taldeek esandakoari entzun ondoren.

Ekonomiaren Sustapenerako Departamentuaren proposamena

GFAk ondorengo helburu orokor, helburu zehatz, pauso eta kronograma proposatu zituen euren politiken egokitzapen baten bidez lantzeko. Egokitzapena dauden programak helburuetara hobeto bideratzetik hasi eta programa berrien garapenera iritxi daiteke.

Helburu orokorra:

Think tankak orain arte esperimentazio prozesu batekin izan du lotura, orain Gipuzkoako Foru Aldundiaren, eta zehatzago, Ekonomia Sustapenerako Departamentuaren herri politikekin lotzea da helburua, horrela esperimentaziotik ekintzara pasaz.

Helburu zehatzak:

- Enpresak gure lankidetzazko gobernantzan txertatzea think tankean parte hartzen ari diren erakundeetako batek haiekin interlokuzioa irekiz
- Hala nahi duten Gipuzkoako enpresei lanaren zentzuaren inguruko aurre-diagnostiko azkar bat egiten laguntzea
- Banakako datuen agregazioz, beti modu konfidentzialean, enpresetan lanaren zentzua nola dagoen jakiteko Gipuzkoa mailako diagnosia egitea
- Enpresek esandakoaren baitan, politiketan egin behar diren eraldaketak aztertzea


Pausoak:

Proposamena sensibilizazio eta diagnostikoa prozesu berdinean egitea izan zen, ondorengo ezaugarriekin (proposamena egiteko Industria 4.0ren esperientzia hartu da gogoan):

- Diseinua 1. Zein enpresetara joan nahi den adostu, 4.0.ren kasuan 10 eta 100 langile bitarteko enpresa industrialak izan ziren
- Diseinua 2. Enpresa bakoitzarekin interlokuzioa nork edukiko duen adostu
- Diseinua 3. Interlokuzio hori edukiko dutenek elkarrekin elkarrizketa egituratu baten diseinua egin enpresa bakoitzean autonomia, gaitasuna, erlazioa eta xedera lehen gerturatze bat egiteko
- Formakuntza. Elkarrizketa egituratua nola erabili eta jasotako datuak aplikazio bakarrean nola jaso formakuntza egin
- Enpresekin lanketa 1. Enpresekin kontaktuan jarri eta, hala nahi dutenei, elkarrizketa egituratua egin.
- Enpresekin lanketa 2. Enpresa bakoitzari bere aurre-diagnostikoa emango zaio eta egokien dagokion programetara bideratuko da, nahi badu, lehenesten duen ardatzaren lanketarekin hasteko
- Politiketarako hobekuntzak. Gipuzkoako enpresen inguruko txostena prestatu eta programetan jasota ez dauden atalen inguruko beharrak jaso

Kronograma:

Proposamena 2023 (III): kronograma



Think tankeko deliberaziosaioak prozesu honetan laguntzera bideratuko lirateke, baina enpresekinhitz egin behar duten pertsonek beste saio berezi batzuk izango lituzkete

Taldeen ekarpenak proposamenari

Aurrez esan moduan, hiru taldetik bik zuzenean erantzun zuten proposamenak aurrez hitz egindakoak jasotzen zituela eta hirugarren talde batek ez zion galdera honi zuzenean erantzun, baina hiru taldeek egin zituzten proposamenarekiko hobekuntza proposamenak.

Diagnostikoaren izaeraren inguruan:

- "gure ustez Gipuzkoarren iritzia falta zaigu. Hau da, zer pentsatzen dute gipuzkoarrek lanaren zentzuaren inguruan?"

Hurrengo fasean parte hartzera gonbidatu beharko liratekeen enpresen ezaugarrien inguruan:

- "Gure ustez enpresek ez lukete ez handiak ez txikiak izan beharko. Tarteko zerbaitekin egin beharko genukeen lana"
- "Enpresa txikien presentzia oso positiboa izango litzake. Espero dut haiek ere bertan egotea"
- "Lehenengo galdera bati erantzun beharko litzaioke: zein enpresa motari interesatuko zaio gai hau? Gure ustez geroz eta enpresa txikiago, orduan eta interes gutxiago izango du horrelako gai baten inguruan"

Enpresetara gerturatzeko moduen inguruan:

- "uste dugu enpresetara joan baino lehenago, enpresa horiek ezagutu behar ditugula. Gure ustez enpresa horiek prest egon behar dute guri entzuteko. Hori baldintza bat izan behar da"

Enpresetara joango diren pertsonek eraman behar dituzten mezu eta tresnen inguruan eta pertsona horiek lan egiteko izango duten gune partekatuaren inguruan:

- “formakuntzaren aurreko zerbait egin behar da: diagnostikoa zein den jakin behar dugu; nola egin behar dugun; zeinekin egin behar dugun”
- “Enpresak elkarrizketatzeko orduan, uste dugu mezuak argia izan behar duela: enpresak ulertu egin behar du zertaz ari garen. Zergatik da beraientzat garrantzitsua lanaren zentzua?”
- “Diagnostikoa egitea garrantzitsua da. Baina, gure ustez tresnak falta dira oraindik. Ekintzara pasatzeko tresnak falta zaizkigu”
- “Think tankean hausnarketa asko egin ditugu, eta ekintzara gerturatzen ari gara. Baina, momentu batean hori bukatu egingo da. Beraz, spin-off moduko batean pentsatu beharko dugu”

Enpresez gain, pertsonak kontuan edukitzearen inguruan:

- “enpresatan pertsonak daude. Eta, pertsona horiek gakoak izango dira. Industria 4.0 eta digitalizazioaren proiektuaren esperientzia daukagu. Beraz, pertsonak ondo aukeratu beharko dira”
- “Proiektua inplementatzen dugun momentuan, enpresak baino gehiago pertsonak aukeratu beharko ditugu. Esaten ari garenaren garrantzia sinesten duten pertsonak behar ditugu. Hemen landu dugun guztiak lehiakortasunarekin zerikusia daukala sinesten duten pertsonak izan beharko dira. […]Inplementazioa bideratuko duten pertsonaren eta enpresako pertsonaren arteko konfiantza oso garrantzitsua da. Ez da enpresa guztia konbentzitu behar. Nahikoa da pertsona egokia aukeratzea eta harekin lan egitea”

Enpresekin taldeka lan egitearen inguruan:

- “uste dugu interbentzioak enpresa blokeetan egin beharko litzatekela. Horrela batak bestearengatik ikasi egingo du. Eragingarriagoak izango gara. Izan ere, enpresa batek besteetan zer egin den ikusteko aukera izango du”

Proposamen berria

Proposamen berria egituratzerakoan oinarrian hartu diren ideiak hauek dira:

- Lanaren zentzuaz aritu beharrean, beste izen bat bilatu behar dugu prozesu honentzat
- “Sinesten duten” enpresetatik hasi
- Garrantzitsua da ez bakarrik enpresek zer iritzi duten gai honi buruz, baita gizarteak zein iritzi duen ere
- Enpresek taldean ikasten dute, prozesuak enpresei taldean ikasteko aukerak eman beharko lizkieke
- Fokoa ez dugu enpresan jarri behar, enpresa horietako pertsona batzuengan baizik.

- Enpresekin lana egingo duten zubilanerako erakundeetako (Adegi, Asle, Merkatal Ganbara, agentziak, lanbide heziketa) pertsonen eta enpresetako pertsonen arteko konfiantza landu behar da
- Enpresekin lana egingo duten zubilanerako erakundeetako pertsonek lanerako espazio propioa beharko dute modu jarraituan mezuak, tresnak eta hauen erabilera adosten joateko

Proposatzen diren aldaketak hauek dira:

- Prozesuari loturiko ikerketan lanaren zentzua kontzeptu moduan mantenduko den arren, politikak elkarlanean garatzeko orduan "lanaren bidez pertsonen ongizatea eta enpresaren lehiakortasuna uztartzeko prozesuei" buruz hitz egin
- 2022-2023an definituriko talde batean bilera baten bidez diagnostiko zabal bat egin beharrean jarduera hau bi azpijardueratan banatzea:
    - Alde batetik, Gipuzkoako gizarteak gai honen inguruan duen ikuspegia jasotzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren barometroa lantzen duen taldearekin elkarlana irekitzea, 2023 amaieran egingo den galdeketan gai honen inguruko galderak txertatuz
    - Zubilana egingo duen eragile bakoitzak "sinesten duten" enpresa talde bat osatu (3-5) enpresakoa, eta 2023an zehar, esperimentazio prozesutik eratorritako tresnak erabiliz, autonomiaren, gaitasunen, harremanen eta xedearen inguruko diagnostikoa egin, premia gehien duen gaiaren inguruan hurrengo pausoa emateko baldintzak sortuz
    - Enpresa bakoitzetik pertsona 1 edo 2 hautatu prozesu hau bultzatzeko gaitasuna izan dezaketenak. Prozesuak pertsona hauei, tresnak emateaz gain, ahalduntzeko espazio bat emango die
- Prozesuaren erdigunean zubilana egingo duten erakundeetako fazilitadoreek osatutako talde bat sortuko da. Talde horrek, enpresetara joan aurretik, mezuak, tresnak, prozedurak, erabiliko den hizkuntza zehaztuko ditu.

Aldaketa hauen arabera, pausoak hauek lirateke:

- Diseinua 1. Parte hartu nahi duten zubilanerako eragileak zein diren adostu eta bakoitzak 3-5 enpresekin kontaktua egin. Taldean aztertuko da enpresa hauek bilatzerakoan "sinesten dutenak" izateaz gain beste baldintzaren bat jarri nahi den
- Diseinua 2. Zubilanerako erakundeetan prozesua errazteko lana egingo duten pertsonekin formakuntza prozesua, autonomia, gaitasunak, harremanak eta xedea lantzeko tresnen inguruan. Formakuntzan adostuko da tresna hauek nola erabili
- Enpresekin lanketa 1. Zubilanean diharduen eragile bakoitzak enpresetako ordezkariekin, erabakitzen den maiztasunaz, saioak egingo ditu diagnostikoan laguntzeko
- Enpresekin lanketa 2. Paraleloan, zubilanean diharduten eragileek euren arteko bilerak izango dituzte ikerketa taldearekin (MU), prozesuaren jarraipena egin, elkarrekin ikasi eta prozesuak behar dituen hobekuntzak egiten joateko

- Enpresekin lanketa 3. Modu anonimoan prozesu bakoitzetik jasoko den dokumentazioa erabiliz, txosten bat prestatuko da, zailtasun nagusiak non topatzen diren eta hauek aurre egiteko moduak zein diren jasoz
- Politiketarako hobekuntzak. Aurreko atalean aipatutako txostenean oinarrituz, GFAren programetan egin daitezkeen hobekuntzak aztertuko dira, enpresei euren ibilbidean hobeto lagundu ahal izateko

c. Saioko programa

THINK TANK

ETORKIZUNEKO LANAREN INGURUKO DELIBERAZIO TALDEA

GRUPO DE DELIBERACIÓN SOBRE EL TRABAJO DEL FUTURO

AURREZ AURREKO SAIOA (GUNEAN), 2022ko ekainaren 23an, 16:00tan

SESIÓN PRESENCIAL (en GUNEA), 23 de junio de 2022, a las 16:00

SAIOAN LANDUKO DEN GAIA/ TEMA CENTRAL DE LA SESIÓN

Aurreko saioan esperimentazio prozesuaren emaitzen inguruan hausnarketa egin zen, prozesuaren amaieran eskuragarri izango ditugun tresna konkretuak zein izango diren bisualizatuz. Tresna hauek erabilera desberdinak izan ditzakete. Saio honetan tresna horien erabilerarako oinarriak jarriko ditugu, zertarako eta noiz erabiliko diren landuz eta partaide bakoitzak erabilera horretan jokatu nahi duen rola lantzen hasiz.

En la sesión anterior se reflexionó sobre los resultados del proceso de experimentación, visualizando las herramientas concretas que tendremos disponibles al final de dicho proceso. Estas herramientas pueden tener diversos usos. En esta sesión estableceremos las bases para su utilización, desarrollando para qué y cuándo se utilizarán y empezando a desarrollar el papel que cada participante quiere jugar en dicho uso.

SAIORAKO AGENDA/AGENDA DE LA SESIÓN

- Sarrera
- 2023-2024 prozesu baten proposamena: zer egingo dugu sortzen ari garen tresnekin?
- Taldearen ekarpenak 2023-2024 epeari begira
- Itxiera

- Introducción

- Propuesta de un proceso para 2023-2024: ¿qué vamos a hacer con las herramientas que estamos desarrollando?
- Contribuciones del grupo de cara al período 2023-2024
- Cierre